

/ Nabarmentzekoak

- > Hiru komun publiko berri Getxon (2. or.)
- > Bringas getxotarrek "Siempre Nunca" aurkeztuko dute (3. or.)
- > Belar Hockeya: Getxoko "Mamis" taldea, Espainiako txapelduna (4. or.)



* 12 proiektu aukeratu dira programazio artistikoko deialdian (4. or.)

36. Nazioarteko folklore jaialdia. Hilaren 16tik 18ra arte, 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoan). Sarrera: 3€.

A-
GENDA

Getxoarte: Udako jaialdia. Tailerrak, lehiaketak, ibilbide artistikoa, arte publikoari buruzko hizketaldiak...

Bizkaiko Flyscharen balioa nabarmentzea izango da jardunaren lehen ardatza

Lankidetzaren hitzarmena, Uribe eskualdean turismo-garapena sustatzeko

Amaia Agirre Getxoko alkatea eta Ion Gorka Elgezabal Jata-Ondo Uribeko Landa Garapenerako Elkartearen presidentea lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Getxo-Uribe eskualdean turismo sektorearen garapena eta hazkundera sustatzeko eta bultzatzeko. Bi erakundeek helburuetako bat sektore turistikoa sustatzea, bultzatzea eta garatzea da, sektore hori nabarmentzen da duen gaitasunagatik ekonomia dinamizatzeko, produktibitatea handitzeko eta enplegua sortzeko. Ekimen honetan eskualdeko turismo aktiboko 38 enpresak hartzen dute parte. Amaia Agirrek eta Ion Gorka Elgezabalek adierazi duten bezala, lortu beharreko bi erronka nagusi honako hauek dira: bisitarien kopurua handitzea -baliabideen jasagarritasuna errespetatuz, haien kargagaitasuna arriskuan jarri gabe- eta eskariaren urtarokotasuna gainditzea, urte osoan zehar gozatu ahal izango diren produktu, ibilbide eta esperientzia berrien bidez, eta ez soilik uda sasoiari.

Hitzarmen horri esker, Getxok eta Jata-Ondo elkarteak partekatzen dituzten baliabideen inguruko proiektuak martxan jarri ahal izango dira, eta horien gainean batera jardungo da, modu ordenatuan eta irudi bakar eta homogeneoa eskainiz txangozaleei eta turistei begira. Gainera, modu parte-hartzailean egingo da, jardun-eremuan diharduten enpresa pribatuekin batera eta tokiz gaindikoa erakundeekin koordinatuta, hala nola Bizkaiko Foru Aldundia-ekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Bizkaiko Flyscha

Bizkaiko Flyscharen balioa nabarmentzeko proiektua hitzarmen honen esparruan garatuko den



Ezkerretik eskuinera: Josu Landazluze, Sopelako alkatea; Cristina Múgica, Aldundiko Turismo zuzendaria; Amaia Agirre Getxoko alkatea, eta Ion Gorka Elgezabal, Jata-Ondo elkartearen presidentea

lehen izango da. Turismoaren Kode Etikorekin konprometitutako mikrohelmuga da, eta 2030 Agendaren garapen errazeko 17 helburuak betetzea du helburu. 2021eko ekitaldirako 33.000 euroko inbertsioa eginez (%30 Getxoko Udalarena eta %70 Jata-Ondorena), jarduera honen helburu nagusia da biltzea eta zabaltzea batera "Bizkaiko Flyscharen" inguruan dagoen natura-ondarea eta turismo-eskaintza, Getxo eta Bakio ar-

teko geozona biltzen duena, hain zuzen.

Bizkaiko Flyscharen eraketa-prozesua 50 milioi urte baino gehiagokoa da, hau da, dinosauroak desagertu zirenekoa. Deklaratutako interes geologikoko 16 lekuren inbentarioak eta "Urrezko iltzeak" (Lutecienseko aldi geologikoaren erreferentea; Geologia Zientzien Nazioarteko Batasunak 2012ko otsailaren 13tik egindako aldari-

kapen ofiziala), duten balio geologikoei esker, munduko geologia-atalik onenetako bihurtu dute lurralde-espazio hau. Bizkaiko 10 baliabide nabarmenetako bat da, eta estrategikotzat jotzen dira turismo-fluxuak lurraldean zehar dinamizatzeko eta birbanatzeko. Eskaintza horrek lurraldearen irudia dibertsifikatzen lagunduko du (Bilbo inguruko hiri-turismoari lotuagoa), eta egungo kontsumo-joerekin bat etorritik lan egingo du (aire zabaleko jarduerak, eremu naturaletan, jasagarriak...)"

Proiektuan jasotako jarduerak nagusietako batzuk ondorengo hauek dira: marka berria sortzea eta www.flyschbizkaia.eus webgunea abian jartzea, geozona honi buruzko informazio eta eskaintza turistiko guztia eskainiz; sustatzea proiektuarekin bat egin duten turismo aktiboko 38 enpresek garatutako jardueren eta esperientzien eskaintza zabala; informazio praktikoa zabaltzea beharrezko interes turistikoko datu guztiak emanaz (nola iritsi, nora jan, non lo egin, turismo-bulegoak...; eremuaren mapa diseinatzea eta editatzea eta Turismoa online sustatzeko kanpaina (Instagram eta Facebook).



Tokioko Jokoetara joango diren kirolariei harrera

Iñigo Urkullu lehendakariak, hainbat agintarirekin batera (Amaia Agirre alkatea, besteak beste), Tokioko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan parte hartuko duten euskal kirolarien ordezkartza bat agurtu zuen joan den astean Basque Team Zentroan (Faduran). Lehendakariak babesa eta konfiantza helarazi zien, eta adierazi zuen "erreferente eta eredu" direla gizartearentzat, bereziki gazteentzat". Olinpiar Jokoak uztailaren 23tik abuztuaren 8ra jokatu dira; Paralinpikoak, berriz, abuztuaren 24tik irailaren 5era. Oraingoz, 13 euskal kirolarik dute plaza bat, baina oraindik 30 baino gehiagok dute plaza hori lortzeko aukera.



UZTAILAK 9 OSTIRALA

Getxoarte: Udako jaialdia. Tailerra. Bizkaia Zubian, Turismo Bulegoaren ondoan, 18:00etatik 20:00etara, "Urban Sketching", Igor Sarralederekin, euskaraz. Beharrezko materialak: koaderno txikia eta arkatza. Plaza mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

Kontzertua. Muxikebarriko Ereaga aretoan, 19:00etan, Getxo Ekinez programaren barruan, Bringas taldeak "Siempre nunca" disko berria aurkeztuko du. Sarrera: 8€.

UZTAILAK 10 LARUNBATA

Getxoarte: Udako jaialdia. Aire zabaleko pintura-lehiaketa. Romon, 09:00etatik 15:00etara. Oinarriak eskura www.getxo.eus/getxoarte web orrian. Ibilbide artistikoa: Arte publikoa. 18:00etatik 20:00etara, "Besarkadaz besarkada", María Garairekin. Irteera: Eduardo Coste kalean, "Homenaje a la industria" eskulturaren ondoan. Amaiera: Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan). Ibilbidea: 3 km, euskaraz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

Blues kontzertua. Muxikebarriko Ereaga aretoan, 19:00etan, Big Daddy Wilson. Sarrera: 12€.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30h. Txiki tailerra. Lurzoruaren Kontserbazioaren Nazioarteko Eguna.

UZTAILAK 11 IGANDEA

Getxoarte: Udako jaialdia. Ibilbide artistikoa: Arte publikoa. 12:00etatik 13:30era, "Un cementerio con vistas: de aquí a la eternidad. Reflexiones para un cementerio del s. XX", Ana Arnaiz eta Iñaki Elexperekin. Gaztelaniaz. Leku mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

Antzerkia. Muxikebarriko Ereaga aretoan, 19:00etan, Getxo Ekinez programaren barruan, Tepsis Teatroren "¡Despierta! Retablos de la vergüenza". Sarrera: 5€.

Bisita gidatua eta antzetzutakoa. "deapie". Manuel M^a Smith. 11:30-12:45. Informazio gehiago: Turismo bulegoa: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus

Ingurumen Aretoa. 11:30-13:30h., Santa Koloma ermitaraino ibilbide gidatua(errotak, errekek, dorreak ...).

UZTAILAK 12 ASTELEHENA

Odol-emate. Algortako Geltokia plaza, goiz eta arratsalde.

Solstizioaren topaketa, Algortako Gaztelekuan, 18:00etan, erritoko eza gutzeko, hainbat elkarte antolatuta. Izenematea: labur.eus/solstizioaren-topaketa. Informazioa: 619935541

UZTAILAK 13 ASTEARTEA

Getxoarte: Udako jaialdia. Ibilbide artistikoa: Arte publikoa. 18:00etatik 20:00etara, "In Memoriam", María Garairekin. Euskaraz. Irteera: Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan). Amaiera: Oroimenaren liburua eskul-

turan (Aixerrota). 3 km. Leku mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

UZTAILAK 14 ASTEAZKENA

Bertso jaialdi mundiala. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan. Sarrera: Muxikebarri eta Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez. Antolatzailea: ALBE.

UZTAILAK 15 OSTEAGUNA

Odol-emate. Areetako Geltokia plaza, goiz eta arratsalde.

Getxoarte: Udako jaialdia. Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan), ADI Bulegoa eta TEO Arkitekturaren eskutik. Euskaraz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

Epea amaitzen da Gizarte Kohesio-ko diru-laguntzak eskatzeko, Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bitartez.

UZTAILAK 16 OSTIRALA

36. Nazioarteko folklore jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Itxartu Dantza Taldea (Getxo). 3€.

Getxoarte: Udako jaialdia. Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan), Veva Linaza eta Unai Requejoren eskutik. Euskaraz eta gaztelaniaz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

UZTAILAK 17 LARUNBATA

36. Nazioarteko folklore jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Ballet Jammu (Senegal). Sarrera: 3€.

Getxoarte: Udako jaialdia. Familia-rako aire zabaleko pintura-lehiaketa. Algorta, 9:00etatik 15:00etara. Ikusi oinarriak www.getxo.eus/getxoarte webgunean. Ibilbide artistikoa: Arte publikoa. 11:00etatik 13:00etara, "In Memoriam", Arantxa Peredarekin. Gaztelaniaz. Irteera: Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan). Amaiera: Oroimenaren liburua eskulturaren (Aixerrota). 3 km. Leku mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus. Arte publikoari buruzko hizketaldia. 19:00etatik 21:00etara, Dario de Regoyosen omenezko oroigarrian (Neguriko gasolindegia ondoan), Esteban Ramos eta Mikel Erkiagaren eskutik. Gaztelaniaz. Plaza mugatuak. Izen-ematea: getxoarte@getxo.eus

Kontzertua. 20:00etan, Algortako Salbatzailearen elizan, XXXIX. Abesbatza Zuzendaritzako Akademiako ikasleen amaiera errezitaldia, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatua. Sarrera dohainik edukiera bete arte.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: egin ezazu Tetrisa (3 urtetik gorantz). www.ingurumenaretoagetxo.eus

UZTAILAK 18 IGANDEA

36. Nazioarteko folklore jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Trim the Velvet (Ipar-Irlanda). 3€.

Ingurumen Aretoa. 10:30-13:30. Helduentzako tailerra: udako kosmetika Garbiñe Bellosorekin. www.ingurumenaretoagetxo.eus

Gaitzespena Mikel Iturgaizek jasandako eraso saiakeragatik

Udaleko Bozeramaileen batzordeak, EAJ-PNVren, PPre, PSE-EEren eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin (beste proposamen bat aurkeztu zuena), talde popularrak proposatutako adierazpen instituzionala onartu zuen astelehenean gaitzesteko "pertonafikusle talde batek Euskadiko Alderdi Popularreko presidente Carlos

Iturgaizen semea den Mikel Iturgaizen (biak ere getxotarrak) aurka gauzatutako jazarpena eta eraso-saiakera, ekainaren 26an Gernikako Urbietan futbol zelaietan partida bat jokatzeko ari zela, bere ideologia politikoa eta Euskadiko Alderdi Popularreko presidentearen semea izateagatik. Jasan zituenek ez dute gure gizartea ordezkatzen, elkarbizitza, tolerantzia eta aniztasunarekiko errespetua direlako

gure nortasunaren ezaugarri nagusiak". Batzordeak berretsi zuen "elkarrizketarekin, ezberdinekiko errespetuarekin, bizikidetzarekin, bakearekin eta askatasunarekiko konpromisoa, gure balio gorenak direlako", eta aldi berean, bere gertutasuna eta babesa adierazi zizkien "jazarpen ideologikoa jasaten duten guztiei".

Adierazpen osoa: <https://bit.ly/3hz7qbk>

Hiru komun publiko berri Getxon

Getxok asteartetik aurrera komun publiko berria du Gernika Parkean (Neguri). Udal liburutegiek Letren Terrazak irekitzearekin batera, parkeak aipatutako ekipamendua izango du, egungo ambigü-aren barruan. Komuna parkearen erabiltzaileen eskariari erantzun dion instalazio bat da. Garai honetan jende asko ibiltzen da inguru horretatik, eta egitura berria bizi-kalitatea eta herritarren aldeko zerbitzuak hobetzeko beste urrats bat ematea da. Gainera, laster lizitazioa ate-



rako da bide publikoan beste bi bainu berri jartzea: bata modulu simple bat izango da San Inazio parkean, eremu horri eta Basagoiti etorbideari zerbitzua emango diena, eta bestea, modulu bikoitz bat Galeako gotorlekuaren inguruan, Azkorrainoko pasealekutik ibiltzen diren pertsonentzat, bi tokiak ere oso jendetsuak



izaten direlako. La Galeako azken ekintza hori Getxo Ekinez 2021 programaren barruan kokatzen da, COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko. Bestalde, Bizkaia Zubiko komun publikoen obrek jarraitzen dute, eta horien irekiera aurrerantzean jakinaraziko da.

2019ko "Getxo txukun" ekimen parte-hartzailearen baitan

200.000€ irisgarritasuna, argiztapena eta segurtasuna hobetzeko Villamonte inguruan

Udalak zenbait hirigintza-jarduketa egingo ditu Algortako Villamonte inguruan, 200.000€-ko balioarekin, irisgarritasuna, argiztapena eta bide-segurtasuna hobetzeko, batez ere. Ekintza horiek *Getxo txukun*. Auzoz auzo, kalez kale. Barrio a barrio, calle a calle ekimen parte-hartzailearen barruan daude, obra txikietarako aurrekontuarekin auzoaren hobekuntzen inguruan auzotarrek dituzten proposamenak, beharrak eta kezkak jasotzeko. Villamonte inguruko prozesuan 221 pertsonak parte hartu zuten eta guztira 462 ekarpen jaso ziren, horietatik 378 baliozkoak izan zirelarik. Laster egingo diren hiru

jarduketa aipagarrienak, 134.864€-tan, honako hauek izango dira: Arene kaleko espaloia hobetzea eta handitzea (Iparbide eta Itxe arteko tartean, 37.724€); Ibaizabal kaleko eskuineko espaloia ezkerreko espaloien altuera berean berdintzea (34.296€), eta Salsidu etorbideko argiztapena hobetzea (62.844€). Era berean, Nerbioi kalearen azken zatiko argiztapena hobetuko da, Villaondoetako aldapan egin den bezala, edo Villamonteko parkean egingo da, kasu honetan udalerriko jolasguneetan berariazko argiteria jartzeko idatzi den proiektuaren barruan. Gainera, 2019ko *Getxo txu-*

kun ekimenaren barruan, hainbat jardura egin dira, esate baterako, abiadura murrizteko bandak jartzea oinezkoentzako zenbait pasabidetan, ispilu berriak ere ipini dira (Arene-Areneondon) eta Salsidu etorbidean, arrapala mekanikoa amaitzen den lekuan, oinezkoentzako pasabide bat jarri da. Bestalde, Arene eta Areneondo elkartzaren diren porlanezko gunean, igogailuaren ondoan, urbanizatze lanak egitea eta jolaserako gune bat jartzea aurreikusiten da eta lanen lizitazioa datorren asteetan izango da. Eta hiri-altzariei dagokienez, hainbat kaletako eserlekuak txukunduko dira.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: [Ainhoa Galduroz](mailto:Ainhoa.Galduroz). Zuzendaria: [Javier García](mailto:Javier.Garcia). Erredaktoreburua: [Itziar Aguayo](mailto:Itziar.Aguayo). Erredakzioa: [Nekane Ardanza](mailto:Nekane.Ardanza).

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: [Bostran Bilbao](mailto:Bostran.Bilbao), S.L. Inprimaketa: [Comeco Gráfico Norte](mailto:Comeco.Grafico), S.L.U. Banaketa: [Lantegi Batuak](mailto:Lantegi.Batuak) Fundazioaren egunOn zerbitzua. Gordailu legala: BI-388-87



ESTABLEZIMENDU
GEHIAGO
ATXIKITA.

KONTSULTATU!

www.getxobono.eus

* "Bizilagunak mendira". Aniztasuna sustatzeko, Bizilagunak Mendira jardura Armintzako Urizarmendira joango da igandean, uztaillak 11. Udalaren, Etorrinen Plataforma Federazioaren eta Egizu elkarrekin ekimena 9:15ean aterako da Areetako Santa Anatik. Izenematea: 622433085/ ge-txobizilagunak@gmail.com.



Big Daddy Wilsonen bluesa Muxikebarrin

Big Daddy Wilson (1960, Edenton) abeslariak kontzertu bat eskainiko du larunbat honetan, hilak 10, 19:00etan, Muxikebarrin. Wilsonen ibilbide luzea egin du azken 25 urteetan, mundu osoan zuzeneko emanaldiak eskainiz eta 13 lan diskografiko kaleratuz. Tradizioa eta modernotasuna eskutik doaz bere musikan, jaioterriko Ipar Carolina-

ko kotoi eta arto sailtako soul eta blues doinu landarretatik Chicagoko bluesaren eragin berrietaraino, New Orleanseko blues karibetarraren erritmoetatik pasatuz. Sarrerak: 12 €.

Tepsis Teatro taldeak “¡Despierta! Retablos de la vergüenza” antzeztuko du

Igandean, hilak 11, *¡Despierta! Retablos de la vergüenza* izenburuko antzezpena izango da Muxikebarrin, Tepsis Teatro taldearen eskutik. Lanak museo erakusketa baten itxura hartzen du. Bertan, zazpi eskulturak bizia hartzen dute haiengana hurbiltzean. Ibilbidea Lavinia gidak zuzentzen du, eta eskulturak esnatu aurretik, artistek horiek sortzean izan



Bringas getxotarrak “Siempre Nunca” aurkeztuko dute

Bringas talde getxotarrak ostiral honetan, hilak 9, estudioko laugarren lana *Siempre Nunca* aurkeztuko du Muxikebarrin. Kontzertua 19:00etan hasiko da Ereaga Aretoan. Sarrerak 8€koak

dira.

Gorka Bringas abeslari eta gitarra da talde horren burua (The Flying Rebollos, CanalBlues...) eta eragin eta ibilbide askotako musikari beterranoak bildu ditu (Jon Wayne, Rubia, Smile, Fakeband...): Joseba Bastida, Borja González eta Pit Idoiaga, besteak beste. Disko berri horretarako, Bringasek aliatu berri bat izan du, Isra Redondo, Hammond eta pianoan.

Bere azken lana 2020 eta 2021 artean grabatu zen, eta rock klasikoa, soula eta powerpopa batzen ditu.

Streaming plataforma guztietan dago eskuragarri eta CD formatuan eskuratu daiteke <https://bringasmusic.jimdo.com> webgunean.

* Bertso Jaialdi Mundiala.

Uztailaren 14an, 19:00etan, ospatuko da Bertso Jaialdi Mundiala, Muxikebarriko Ereaga aretoan, ALBEk antolatuta. Jaialdian Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Sustrai Colina, Aitor Sarriegi eta Unai Mendiburu bertsolariak izango dira. Sarrera gonbidapenaren bidez izango da eta Muxikebarrin eskura daiteke edo ALBEren whatsapp (605704385) edota emailaren bidez (albegetxo@gmail.com) ere.

dituzten motibazioak azaltzen ditu. Pobrezia, genero-indarkeria, prentsaren boterea, kapitalismoa, demokrazia, paterak... Mundua epaitu gabe ulertzeko modu bat da, errealitatea erakutsiz soilik, horregatik erretaula modura egingo da daude.

Antzezpenearen sarreraren prezioa 10€-koa da.



Letren Terrazak kaleetan eta irakurketa puntuak Algortako azokan eta Faduran

Bueltan dira udako udal-liburutegiak, eta abuztuaren 27ra arte irakurketa hurbilduko diete haurrei eta helduei. Uztailaren 30era arte Gernika parkean, Iturgitx plazan eta Sarri plazan egongo dira. Gero, abuztuaren 3tik 27ra, Areetako Geltokia plazara, Algorta plazara eta Aldapa parkera lekualdatuko dituzte. Irakurketa-aukera zabala izango da, eta ordutegia astelehenetik ostiralera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara izango da. Mailegu-zerbitzua COVID-19aren aurkako osasun-neurri guztiak betez egingo da. Gainera, udal liburutegiek irakurketa guneak jarri dituzte Fadurako kanpoko igerilekuan eta Algortako azokan. Azken hori, “Bookcrossing” ezagunaren tokiko bertsioa da; gune dinamikoa izango da, eta bertan bilduko dira tokiko merkataritzaren aldeko apustua egiten duten eta irakurketaz gozatzen duten pertsonak. Patricia Gómez getxotarraren Colordehogar enpresak lagundu du proiektu hori martxan jartzen.



Michelangelo Scandroglio Quintet irabazlea Getxo Jazz 2021eko Taldeen Lehiaketan

Michelangelo Scandroglioren boskotea Nazioarteko Jazzaldiko Taldeen Lehiaketan garaile. Bigarren postua Víctor Jiménez & Friends taldearentzako izan zen eta Andreu Pitarch, azken talde honetako bateria-jotzailea, izan zen instrumentista onenaren saria irabazi zuen musikaria. Scandroglio, soilik 24 urteko gaztea izanik, italiar jazzean etorkizun oparoa izango duen artistarik interesgarrietako bat da. *Riga International Jazz Bass Competition* Lehiaketako irabazleetako bat izan zen, non Adam Yuang Hongek Pekingo Jazzaldian jartzeko gonbidatu zuen. 2018an, Venetoko *Tomorrow's Jazz* sari ospetsua jaso zuen, herrialdeko talentu gazte onenetako bat izateagatik. 2020an *In the Eyes of the Whale* diskoa kaleratu zuen, Auand Records konpainiaren lider gisa. Albumeko musika eta bere “taldearekin” Umbria Jazz taldeak antolatutako Conad Jazz Lehiaketan lehena izan zen.

12 proiektu aukeratuta programazio artistikoko deialdian

Guztira, 12 proiektu aukeratu dira Kultur Etxeak 2020ko azaroan abian jarri zuen Programazio Artistikorako Laguntzen Deialdiaren barruan, hau da, kultur sektorean osasun-krisiaren ondorioak murrizteko abian jarritako laguntza-sorta baten barruan. Horrek kultura-sorkuntzarako eta kultura-prestakuntzarako diru-laguntzak ere jasotzen ditu. Deialdiak harrera bikaina izan du eta askotariko diziplina artistikoen 33 proposamen jaso ditu, kalitatea, originaltasuna, udalerririkiko lotura, euskaren erabilera eta bideragarritasun teknikoa kontuan hartuta aukeratu. Guztira, 90.000€ bideratu

dira hautatutako proiektuetara. Deialdi hori iaz ospatu ezin izan ziren tokiko jaiak egiteko baliabidekin finantzatu da, eta getxotarren sustatutako edo egindako proiektu artistikoen erakusketa sustatu eta bultzatu nahi du, horrela «tokiko sormen-talentua» erakutsi ahal izateko. Aukeratutako proiektuak askotarikoak izan dira, besteak beste, antzerki amateur eta profesionaleko ikuskizunak, dantza, arte digitala eta musika, baita estreinaldi zinetografitikoa ere. Guztiak Muxikebarrin ikusgai izango dira.

Proposamen batzuk
Horien artean dago *Desfasando,*

que es gerundio, Lalulu tokiko konpainiak sortutako antzerki-komedia. Horrek Maribel Salas, Gemma Martínez eta Sol Maguna aktore ezagunak bilduko ditu taula gainean, datorren uztailaren 24an, 19:00etan, eguneroko bizitzako hainbat gairi irtenbideak proposatzeko, umorezko esketx formatuan.

Bestalde, Gorka Bringas, Bringas talde getxotarraren burua ere aukeratu dute deialdian. Oraingoan, Getxoberriren hirugarren orrialdean agertzen denez, *Siempre nunca* izeneko disko berria aurkeztuko du ostiralean, uztailaren 9an, Muxikebarrin, publikoaren aurrean.

Hautatutako beste proiektuetako bat *Yo... en un banco verde* da, Utopian herriko konpainiaren eskutik urriaren 12an, 20:00etan, taularatuko den antzezlan. Pieza garaikidea da, eta teknologia erabiltzen du diziplinartekotasunetik hizkuntza poetikoarekin komunikatzeko.

Aurten ere berriro jarriko da abian sektoreari zuzendutako hiru deialdiek osatzen duten paketea, oraingoan *Getxo Ekinez* programaren barruan, hau da, krisiak hainbat arlotan, besteak beste, kulturaren, izan dituen ondorioak arintzeko Udalak martxan jarri duen programaren barruan.

KIROLAK

Belar Hockeya: Getxoko "Mamis" taldea, Espainiako txapelduna

Club Hockey Stick Getxo taldeak irabazi du Espainiako Mamis txapelketa Terrassan. Duela zazpi urte sortutako +35eko emakumezkoen taldeak Egara Klubaren aurka irabazi zuen (3-1), titulua erabaki zuen partida garaitu ondoren.

Saray Lago de los Arcosek aurreratu zituen getxotarrak. Hala ere, Esther Contrerases anfitrioiaren alde egin zuen. Jany Galvezek Getxo aurreratu zuen berriro, eta, ondoren, Cecilia So-



tok sartutako golari esker, irabazleentzat izan zen garaipena. Txapelketan 24 taldek hartu zuten parte eta Mamis izenekoak galdu gabe atera ziren jokaturako zazpi partidetan.

Klub getxotarrak zorionak eman dizkio +35eko taldeari, urte gogor batean entrenamenduak eta ilusio handiak lehiatu eta titulua lortzera eramanez. "Amets bat bezalakoa da, oraindik ez dugu sinesten", esan dute taldekideek.

Ur Irekiak Galea Kirol Klubeko kideak dira

Andrea de la Hera, Eduardo Porset eta Iskander Sagarminagaren emaitzak bikainak izan dira Capri-Napoli igeriketa-zeharkaldian

Andrea de la Hera (28 urte) igerilariak eta bere taldekideek, Eduardo Porset (58 urte) eta Iskander Sagarminaga (38) (Ur Irekiak Galea Kirol kluba #getxokirolak), emaitza bikainak lortu dituzte 36 kilometroko Capri-Napoli proba mitikoan, ur irekietako munduko proba gogorrenetako batean. Andrea de la Hera lehena iritsi zen helmugara, Marco Allegrettirekin batera, 7 ordu 55 minutu eta 53 segundoko denborarekin; Eduardo Porset, hirugarrena izan zen, 9.09.15ekin, eta Iskander Sagarminaga, laugarrena, 9.39.59ekin. Nazioarte mailan oso proba zorrotza da, hori dela eta igerilari askok ez dute amaitu ere egiten. Talde getxotarreko hiru kideak bere burua urte osoan zehar prestatzen ari dira txapelketa mailan aritu ahal izateko, eta horrela izan da. Igerilekuan zein itsasoan egin

dituzten entrenamendu guztiek, jasandako baldintzarik gogorrenek ere, merezi izan dute, eta antolakuntzak ematen duen denbora baimenduan iristea lortu zuten, 10 ordu gehienez; hori haizea, kontrako korrante eta ohikoa baino altuagoa izan

zen uraren tenperaturarekin topo egin ondoren.

Hirurek dute oso curriculum zabala distantzia luzeko probetan, eta azpimarratu dute orain arte egin duten itsas zeharkaldirik gogorrena izan dela.

Formentera-Ibiza 30 km eta Randeko bataila 27 km

Gainera, Getxoko taldeko zortzi kide igerian aritu ziren ekainaren hasieran, baldintza gogorretan, besteak beste, haizea, euria eta marmoka bankuekin egin zuten topo. Formentera-Ibiza 30 kilometroko proban, non lehen bost sailkatuak taldekoak izan ziren. Lehenak Aingeru eta Eneko Saezmiera anaiak izan ziren, ondoren Andrea de la Hera, Eduardo Porset eta Fernando Tellez.

Agurtzane Domingo klubeko kideak, 57 urtekoak, zeharkaldi oso ona egin zuen Cies uhartetatik San Simón uhartera, Randezubitik igaroz; 27 kilometro egin zituen 15 eta 16 gradu bitartean zegoen urean. Haizea eta korrantea kontra zituela, proba gogorrena egin zuten eta Agurtzane Domingok neoprenorik gabe, 9 ordu eta 3 denborarekin.

